BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1835

EBAZPENA, 2012ko martxoaen 20koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2011ko azaroaren 30eko Ebazpena zuzentzen duena. Honen bidez 2011-2012 ikasturterako diru-laguntzak eman zitzaizkien zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako eskolen titular diren tokiko korporazioei.

2011ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen 2011-2012 ikasturterako dirulaguntzetarako, eta zero eta hiru urte arteko haureskolen titular diren tokikorporazioei deialdia egin zitzaien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta toki-korporazioen arteko lankidetza-hitzarmenak gauzatzeko.

Hezkuntzako sailburuordearen 2011ko azaroaren 30eko Ebazpenak (abenduaren 28ko EHAA) Udal bakoitzari dagokion laguntza azaltzen du.

2011ko uztailaren 27ko aginduak, 5.2 artikuluan, zera azaltzen du: «2012ko urtarrilaren 8an haur-eskolan izena emandako haurkopurua aldatu bada, plaza gehiago direlako edo gutxiago direlako, kontuan hartuko da 2012ko urtarrila-uztaila aldiari, biak barne, dagokion kopurua ordaintzerakoan; gainera, jasotako kantitateak doitzeko ahalmena izango du Administrazioak, haur-kopurua baieztatu eta gero».

Udal batzuk urtarrilaren 8an umeen kopuruaren aldaketaren berri azalduz, dokumentazio berria bidali dute.

2011ko uztailaren 27ko Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketako sailburuaren aginduaren 5.2 artikuluari jarraituz eta dokumentazio guztia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean zehaztutako udaletxe bakoitzak jasoko dituen zenbatekoak aldatzea.

2. artikulua.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 20a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

I. ERANSKINA

UDALAK

		UDALA	Totala 2011-azaroa-20	Gehinketa	Total berria	1. Ordainketa (2011. urtea)	2. Ordainketa (2012. urtea)	3. Ordainketa (2012. urtea)
ARABA								
	1.0P0106300G.00	Gaubea	37.912,30	2.865,46	**40.777,76**	8.816,82	15.980,47	15.980,47
	1.P0106800F.00	Vitoria-Gasteiz	1.532.603,97	14.327,30	**1.546.931,27**	505.137,07	520.897,10	520.897,10
GIPUZKOA	1.0P2001000E.01	Andoain	216.893,55	28.654,60	**245.548,15**	60.836,01	92.356,07	92.356,07
	1.0P2001400G.00	Aretxabaleta	300.579,56	11.461,84	**312.041,40**	89.686,50	111.177,45	111.177,45
	1.0P2006800C.00	Oiartzun	508.766,19	22.923,68	**531.689,87**	152.395,97	189.646,95	189.646,95
	1.0P2008200D.00	Ordizia	345.888,12	42.981,90	**388.870,02**	98.103,28	145.383,37	145.383,37
	1.0P2006900A.00	Pasaia	115.904,25	5.730,92	**121.635,17**	35.769,29	42.932,94	42.932,94